

BALENDIN ENBEITA. *Bizitzaren joanean*. Elkar. Donostia, 1986.

Muxikako Enbeitatarrak emankorrek izan dira euskal kulturaren. Honako liburu hau dugu horren lekukotasunetarik bat. Egilea, guzientzat oso ezaguna, lehendik ere beste liburu eder baten egilea dugu. Auspoa Liburutegiko sailean 117-118. zenbakia osatzen duena, *Nere apurrak* deritzana, duela hamabi urte argitaratua. Zoritxarrez ezbehar baten ondorioz aurtengo azaroaren 20an hila. (G. B.).

Oraingo liburu honek bere atarikoan Joseba Intxaustiren gutuna dakar hitzaurre gisa, Enbeitatarren emaitza goretsiz. Ondotik seme Keparen zenbait ohar. Aintzin solas laburron ondotik sartzen gara liburuaren mamira. Gaztaroko eta gerra-ko pasadisoak kontatzen ditu lehenik eta horiek historia alde-
tik berez duten balioa kontutan hartzekoa baldin bada ere, behar bada parterik aspergarrienak dira. Lekukotasunik ezin uka. Gainera, horien artean, honako hau irakur daiteke 34. orrialdean: «Ez dot ikusi oraindino Lauaxeta baino euskerazko hizlari ederragorik». Zeren, guk behin baino gehiagotan entzun genuen Lauaxeta eskas ibiltzen zela euskaraz mintzatzen. Eta horrek inoiz harritzen ninduan, zeren bere idazkerak, garai haietako garbizalekerien ondoan, hizkera jori eta naharoa nabari bai du.

Gerraondoko berrieri garrantzizkoagoak derizkiogu, «Ondo zainduak» deritzan kapituluko gertakariak bezalakoak oso normalak ziren frankotiarren partetik.

Bertsolaritzaz berri jakingarriak ematen ditu, bereziki gerraondoko berrastapenez eta «Garriko» bertso eskolaz, guk inoiz Muxikako eskolatzat erabili duguna eta bertako maisu eta eragilerik bizkorrena Balendin egile bera zena.

64. orrialdean aipatzen duen Euskaltzaleen bilera, ez zen 1955ean, baizik urte bete beranduago, 1956an irailaren 15 eta 16an Arantzazun. Han kantatu zituen bertsoak ikus *Euskera* agerkarian, 1956ko hirugarren alearen 301-304. orrialdeetan.

1958 eta 1959. urteetan Bizkaiko txapelkun atera zen Balendin. Mugazandik urte bete lehenago hasi eta Paris-ko txapelketak (1958) atera zuen hotsaren ondotik etorri zen gerraondan bertsolari txapelketen berpizkundera (ikus *Egan*, 1985eko 5-6 zenbakiaren 21-49. orrialdeak). Noriberea emateko G. Hermandorena eta A. Irigoyeni zor zaie batitbat ekintza berriaren hastapena, eta hala geldi bedi bertsolaritzaen historian.

Harrigarria badirudi ere, Balendinek ez zuen ikasi bertsoan bere aita zen «Urretxindorra»gandik, aitita «Txotxojeuri»gandik baizik (Juan Antonio Enbeita izen-deituraz). Eta, honen gertakari politikak jasotzen ditu liburuan. Baina, amuna Mari Jaurirenak ez dira gutiagorako. Parte horietatik aurreruntza koronika interesgarriagoa eta irakurgai atseginagoa egingo zaigu liburua. Interesgarriak direnez Juan Arrospide medikuari buruzkoak, gizonaren lekukotasuna borondatez eta ekintzaz agerraraziaz, zintzotasun osoa erakutsiz.

Baina ez da gutiago bere aita Kepa «Urretxindorra» zenari buruzko guzia. Hain ospetsua zen Kepa Enbeita, Enbeitatarretan ospetsuena noski, Muxikako auzoentzat Pedro Jeuri zen, bereziki Ariatzakoentzat. Kepa Enbeita «Urretxindorra»ren itzalak lau belaunaldiz familia honek eman dituen bertsolari guziak estaltzen ditu, besteok ere nortasun handikoak izanarren. Eta, hor dator gizonaren osotasuna seme batek ikusia.

Azkenaldera, bere adiskide Saturren gertakariak gatza eta piperra ematen diote liburuari, aurreko zenbait partetan eskaintzen duenaz gainera.

Bukaeran egilearen bertso hautatuak datoz.

Berak Saturri opa zion agurra eskainiko nioke gaur berari:

Nahizta lurrak iruntsi
Aldi baterako
Zure espiritua
Ez da ustelduko
Zer da gure bizitza
Hori ez balego.

J. S. M.